



## **NAFARROAKO GOBERNUAREN PUBLIZITATE INSTITUZIONALEKO URTEKO PLANA 2024**

Irailaren 13ko 57/2010 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esparruan laguntza kontratuak egiteko eskumenak berrantolatzen dituen abenduaren 17ko 255/2007 Foru Dekretua aldatu zen. Hartan, besteak beste, publizitate instituzionaleko kontratuak zentralizatu ziren Nafarroako Gobernuarentzat eta haren erakunde autonomoentzat.

2024. urterako Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren Zuzendaritza Nagusia da publizitate-kontratu guztiak kontratatzeko organoa eta horien kudeaketa-unitatea Komunikazio Zerbitzuko Publizitate Instituzionalaren, Sare Sozialen eta Ikus-entzunezko Baliabideen Atala.

Publizitate-jarduera zentralizatzeak publizitate-sorkuntzako kontratuetan eta publizitate-espazioak erosteko kontratuetan izango du eragina.

2024rako publizitate inbertsioaren aurreikuspena 1.402.880,50 eurokoa da, eta honela banatuko da:

- 1.117.880,50 euro plan honen 1. puntuan planifikatutako eta zehaztutako inbertsiorako; horietatik 326.000 euro Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren Zuzendaritza Nagusiak finantzatuko ditu, eta 791.880,50 euro finantzatzaile gisa zerrendatutako sailek onartu eta eskura jarri dituzte.
  - Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren Zuzendaritza Nagusiak finantzatuko ditu ere, 200.000 euroekin, "Nafarroa Marka" eta lurralde-marka horrekin bat egiten duten sailetako bestelako ekimenak indartzen dituzten planifikatu gabeko publizitate-ekintzak.
  - Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren Zuzendaritza Nagusiak, gainera, 60.000 euro jarriko ditu finantzatzen dituen kanpainetako publizitate sormena kontratatzeko.
  - Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren Zuzendaritza Nagusiak beste 25.000 euroekin finantzatuko du sustatzen dituen kanpainak sare sozialetan zabaltzeko lana.
1. Hau da Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoek 2024rako planifikatu dituzten publizitate kanpaina instituzionalen zerrenda:



HASIERA	KANPAINAREN ARRAZOIA	FINANTZAKETA UNITATEA	INBERTSIOA
Otsaila	Euskararen sustapena haur eta gazteen artean	Memoria eta Bizikidetzeta, Kanpo Ekintza eta Euskara	50.000
Otsaila	M-8 Emakumeen Nazioarteko Eguna	Lehendakaritza eta Berdintasuna	55.000
Martxoa	Eskola publikoaren sustapena	Komunikazioaren eta P.I.ren ZN	80.000
Martxoa	Alkohol-abusuaren prebentzioa	Osasuna	60.000
Martxoa	Indarkeria matxistaren aurkako 24 orduko zentroaren irekieraren sustapena	Lehendakaritza eta Berdintasuna	59.120,50
Apirila	Errenta kanpaina	Komunikazioaren eta P.I.ren ZN	80.000
Maiatza	Nafarroako Museoen Sarearen eta Kulturizan programaren sustapena	Kultura, Kirol eta Turismo	69.000
Ekaina	TSlen prebentzioa festak eta uda	Osasuna	40.000
Ekaina	Jaietako eta udako trafikoko istripuen prebentzioa	Barne, Funtzio Publiko eta Justizia	50.000
Ekaina	Kultur programen eskaintzaren sustapena	Kultura, Kirol eta Turismo	91.560
Ekaina	Agenda 2030 eta haren garapen-helburuen sustapena	Komunikazioaren eta P.I.ren ZN	60.000
Iraila	NEZren prestakuntza-eskaintza zabaltzea	Eskubide Sozialak	50.000
Iraila	Umetoki-lepoko minbiziaren detekzio goiztiarra	Osasuna	50.000
Iraila	Euskararen sustapena helduen artean	Memoria eta Bizikidetzeta, Kanpo Ekintza eta Euskara	50.000
Urria	Laneko ezbeharren prebentzioa	Eskubide Sozialak	48.200
Octubre	Gidatzean distrakzioak prebenitzea	Barne, Funtzio Publiko eta Justizia	75.000
Noviembre	“Gora Gora Fest” programa zabaltzea	Memoria eta Bizikidetzeta, Kanpo Ekintza eta Euskara	50.000
Noviembre	Nafarroaren Egunaren ekitaldi programa zabaltzea	Komunikazioaren eta P.I.ren ZN	100.000



2. Planifikaziotik kanpo daude “Nafarroako Turismoa” marka sustatzeko publizitate-kanpainak, bereziak direlako eta Foru Komunitatetik kanpo batez ere eragiten dutelako.
3. Halaber, Nafarroako Gobernuko departamentuek beste publizitate kanpaina instituzional batzuk sustatzen ahalko dituzte, plangintza honetan jasotakoez bestelakoak, publizitate kontratazioarako euren aurrekontu kredituen kontura. Agindu horiek subsidiarioak izango dira plangintza honetan jasotako kanpainei dagokienez, eta Publizitate Instituzionalaren, Sare Sozialen eta Ikus-entzunezko Baliabideen Atalean tramitatu beharko dira irailaren 30a baino lehen, dagozkion kanpainak 2024ko ekitaldian zabal daitezzen.
4. Abenduan publizitate-ekintzak aurreikusten dituzten publizitate-kanpainak 2025eko aurrekontu-kredituaren bidez finantzatuko dira.
5. Komunikazioaren eta Proiektio Instituzionalaren Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen duen Publizitate Instituzionalaren partidaren saldoa, planifikatutako kanpainak gauzatzean gastu txikiagoak sortzen badira, zuzendaritza nagusi horrek erabili ahal izango du, bai Urteko Plan honetan zerrendatutako beste kanpaina batzuen gastua handitzeko, bai Plan honen xede izan ez diren beste publizitate-ekimen batzuetarako (3. puntua).
6. Oro har, publizitate mezuek Nafarroako bi hizkuntza koofizialetan zabalduko dira.
7. Publizitate-mezuek gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatuko dute; LGTBI+ kolektiboa ikusaraziko dute; kultura arteko aniztasuna erakutsiko dute; eta irisgarritasun unibertsalari buruzko foru-araudia beteko dute.
8. Publizitate-mezuek, modu grafikoan edo lokutatuta, Nafarroako Gobernuaren logotipoa izanen dute beren publizitate-mezu guztietan, ikur ofizial hori eta haren erabilera arautzen dituen urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren arabera.
9. Komunikabideetan publizitate-espazioak erosteko kontratazioa publizitate-kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera egingo da (Toki Administrazioiko kontseilariak Gobernuaren bozeramaile gisa emandako 1/2003 Foru Agindua), eta audientzien irizpide nagusia CIES S.L. enpresaren 2023 Nafarroako Audientzien Azterlana aplikatuz neurtuko da (komunikabideen, publizitate-agentzien eta erakundeen kofinantziazioarekin egina, horien artean Nafarroako Gobernu bera).
10. Komunikazio Zerbitzuak txosten bat argitaratuko du 2025eko lehen hiruhilekoan, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian, Nafarroako Gobernuak 2024ko ekitaldian publizitate instituzionalean egindako inbertsioen betearazpenari buruzkoa.